


# Prentsaurrekoa

## Nouvelle-Aquitaine Euskadi Nafarroa 2017

### Proiektuetarako deialdiaren

### 1. saioko aukeraketa

### Prentsa-txostena





LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea  
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra  
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

- **Nouvelle-Aquitaine Euskadi Nafarroa proiektuetarako deialdia**


Nouvelle-Aquitaine Euskadi Nafarroa proiektuetarako deialdiaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan, Nouvelle-Aquitaine eskualdean eta Nafarroako Foru Erkidegoan kokatutako eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzarako ekintzak sustatzea da, guztiek batera proiektuak gara ditzaten.

2014-2020 Plan Estrategikoaren bitartez, Euroeskualdeak bere jarduerarako lehentasunak zehaztu zituen eta lurralde-lankidetzaren zerbitzura dagoen tresna ekonomiko nagusiaren, proiektuetarako deialdiaren, esku-hartzearen esparrua berritu zuen. Nafarroa Euroeskualdera batu zenean, finantzaketa-tresna hori Euroeskualdearen perimetro berrira hedatu zen, hiru eskualdeetako kideen arteko lankidetzaproiektuak barne hartzeko. Nouvelle-Aquitaine Euskadi Nafarroa proiektuetarako deialdiak 700.000 euroko zuzkidura du.

2017rako, LLETen Biltzarrak proiektuetarako deialdiak bi saio izango dituela erabaki du. Lehenengo saioak 400.000 euroko zuzkidura izango luke eta “Euroeskualdeko herritartasuna” estrategiaren 1. ardatzean sartuko litzateke; bigarren saioak, aldiz, 300.000 euroko zuzkidura izango luke eta “Ezagutzaren ekonomia - berrikuntza - enpresen lehiakortasuna” estrategiaren 2. ardatzean sartuko litzateke, “Europa 2020” strategiaren esparruan.

Nouvelle-Aquitaine Euskadi Nafarroa proiektuetarako deialdiaren lehenengo saio honetan Nouvelle-Aquitaine, Euskadi eta Nafarroaren arteko 22 lankidetzaproiektu jaso dira. 51 proiektu onar zitezkeen eta beraz, % 65 inguru aurkeztu da. Horietatik % 8 Nouvelle-Aquitaine eta Nafarroaren arteko lankidetzaproiektuak dira eta gainerako % 27 Nouvelle-Aquitaine eta Euskadiren arteko lankidetzaproiektuak. (ikusi grafikoa).

## Projets éligibles AAP 2017



- **2017ko proiektuetarako deialdiaren 1. saioko aukeraketa:**

Ekainaren 20an Hendaian bildu zen Euroeskualdearen Zuzendaritza Kontseilua, Nouvelle-Aquitaine Euskadi Nafarroa 2017 proiektuetarako deialdiaren lehenengo saioan aukeratutako proiektuen zerrenda egiteko. 400.000 euroko aurrekontu-partida izan du proiektuetarako deialdiaren saio horrek.

### Hona hemen aukeratu diren proiektuak:

- 13 proiektu aukeratu dira **kulturaren arloan**.
  - «Karmen Pastoral»: Prosper Mérimée idazle paristarraren Carmen eleberrian oinarritutako pastoral. Kideak: Karmen Etxalarkoa Pastoral Elkartea, Katalina Pastoral Elkartea eta Gaztelu Elkartea.

- o «Ainarak»: emakumezkoen migrazioaren historiari buruzko transmedia proiektua. Pirinioen hegoaldeko haranetako “Ainaren” istorioa kontatzen du. 1870etik 1940era bitartean Maulera joaten ziren, espartinak jostera. Kideak: Zinea Sortzen SL, Aldudarrak Bideo, 601 Producciones Audiovisuales.
- o «Ane eta Pierren bila»: “Ane eta Pierre, maitasun istorio bat piper artean” film luzea egiteko lanaren lehenengo etapa. Kideak: Gariza Films eta La Fidèle Production.
- o «ARTHA»: ikasturtean zehar ARTHA ikuskizuna sortzeko prozesuan murgiltzeko 2 tarte proposatu dira, dantza garaikideko konpainietan ari diren nerabeentzat. Kideak: Association Elirale, Arrakala Koop Elk Txikia (Baratza Aretoa) eta Barañain Auditorioa Fundazioa.
- o «Easo-Aizkoa abesbatza»: bi abesbatzen arteko lankidetzan oinarritzen da proiektua, EASO abesbatza eta AIZKOA abesbatza, euskal kantu korala zabaltzeko. Kideak: Easo eta Dringilindron abesbatza - Choeur Aizkoa.
- o «Karrikan»: Euskal Herrian kaleko arteen esparruko sorkuntza indartu eta ezagutzera eman nahi duten zazpi kultur operadorek sortutako plataforma da KARRIKAN. Kideak: CAPB - Pôle Territorial Errobi - Fabrique des arts de la rue Hameka, Vitoria-Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Distribución y Gestión de Espectáculos SLU.
- o «Dantzagune»: euskal dantza tradizionalari buruzko proiektua, ondare hori aztertzea, aberastea, erakustea eta sormena erabiliz berriro jendarteratzea helburu duena. Kideak: Nafarroako Dantzarien Biltzarra, Iparraldeko Dantzarien Biltzarra, Gipuzkoako Dantzarien Biltzarra eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarra.
- o «Soinua iratzarri»: soinua Iratzarri musika-arloko sorkuntzaren inguruko tailerra da, Euskal Herriko Musikagileen Elkartek proposatutakoa. Kideak: Musikagileak Euskal Herriko Musikagileen Elkartea eta Taun TaunGO!
- o «Exposición recorrido premios arquitectura»: kultura oinarri duen proiektua da, bi kideen ezagutza eta ekintza arkitektonikoak sustatu eta zabaltzea helburu duena. Kideak: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala eta Conseil Régional de l’Ordre des Architectes d’Aquitaine.
- o «Residencia cruzada»: Huarte zentroa eta COOP elkartu egin dira Nafarroako herri abandonatu batean bizileku gurutzaturako proiektu bat garatzeko. Kideak: Uharteko Arte Garaikideko Zentroa eta COOP.
- o «ADENNA»: diseinatzaile profesionalen elkarteen arteko hurbilketarekin zerikusia du proiektuak. Kideak: Fédération des Designers de Nouvelle Aquitaine eta Euskadiko Diseinugileen Elkartea.

- o «Korrontzi&OSN&Leinua»: hiru kultur instituzioren diziplina arteko ekimena da, guztiek batera ikuskizun bat egiteko sortua. Kideak: Baga-Biga SL, Korrontzi eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa.
  - o «Mugakide»: muga oinarritutako proiektu honek mugaz haraindiko argitalpen bat sortzea du helburu, lankidetzan arituta. Ikusmen-artearen eta kultura garaikidearen ingurukoa litzateke argitalpen hori. Kideak: Artitadetó Artisten Elkarte, Association Littoral Basque Atalaia/CPIE Littoral basque eta Huarateko Arte Garaikideko Zentroa.
- 6 proiektu aukeratu dira **hezkuntzaren eta gazteriaren arloan**.
- o «Plataforma para la movilidad de estudiantes de FP del sector social y socio sanitario»: Nouvelle Aquitaine eskualdeko, Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko 10 zentzoren arteko lankidetzaren proiektua, hezkuntzaren sektorekoa. Kideak: Centre Etcharry Formation Développement, Nazaret zentroa, CIFP EASO Politeknikoa LHII, CIFP Meka LHII, Plaiaundi Institutua, Eskurtze Institutua, Inmakulada Lanbide Ikastola eta Escuela Politécnica Navarra.
  - o «Gaztejeunes»: gazteria-arloan Euroeskualdeko herritartasuna sustatu nahi duen proiektua. Kideak: Agintzari SCIS, Gaïdo LAB eta Kamira SCIS.
  - o «Mugak gaintuz»: Iñaki Ochoa d’Olza DBHIren eta Pau hiriko Collège Pierre Emmanuel zentroaren arteko lankidetzaren eta mugikortasun-proiektua. Kideak: Iñaki Ochoa d’Olza DBHI eta Collège Pierre Emmanuel.
  - o «Soutien au programme jeunesse Hermione»: Euskadiko eta Nafarroako gazteen trukerako programa, Hermione elkartearen baitan. Kideak: Association Hermione, Albaola, Sakanako haranaren garapen ekonomikorako agentzia.
  - o «Euroeskualdea eta euskara»: Euroeskualdeko hiru institutuen arteko kultura- eta hizkuntza-trukerako proiektua. Kideak: Maison basque de Bordeaux, Lauro Ikastola Koop. Elkarte eta Ribera del Arga de Peralta BHI.
  - o «Ciudadanía joven eurorregional»: Akitaniako gazteen eta Euskadiko eta Nafarroako gazteen arteko trukea sustatzea da proiektuaren helburua, boluntario gazteentzako nazioarteko kanpamentuen bitartez. Kideak: Concordia Aquitaine eta Arrigorriagako Udala.
- 3 proiektu aukeratu dira **eleaniztasunaren arloan**.

- o «Correcteur orthographique en lenga occitana»: okzitaniera garatzeko proiektua da, okzitanierarako balio duen zuzentzaile ortografikoa diseinatu, garatu eta argitaratzea helburu duena. Kideak: Lo Congrès permanent de la lenga occitana eta Elhuyar Fundazioa.
  - o «Euskarabentura»: Quetzal ibilbidea inspirazio-iturri duen ibilbidea. Kideak: Euskarabentura elkarte, Euskaldunon biltoki elkarte, Zortzi probintziak elkarte.
  - o «Emazu eskua»: ikasleen topaketarako programa, hainbat diziplinaren ikuspuntutik antolatutako ekintza pedagogikoetan erabiltzeko den eta komunikazioa errazten duen tresna partekatu bat oinarri hartzen duena: euskara. Kideak: Ikas-bi elkarte, EHIGE eta Herrikoa.
- Proiektu bat aukeratu da **kirolaren arloan**.
- o «Randonnée cyclotouriste Bordeaux Pampelune Bilbao 2018»: irteera horren hirugarren edizioa da. Orain Nafarroatik ere pasatuko da eta 2018ko maiatzaren 10ean, 11n eta 12an egingo da. Kideak: Stade Bordelais – ASPTT, Bilboko Txirrindulari Elkarte, Grupo Ezkaba Txirrindulariak.

- **Nouvelle-Aquitaine Euskadi Nafarroa 2017 proiektuetarako deialdiaren 2. saioa**

2017an 300.000 euroko aurrekontu-partida izango du proiektuetarako deialdiaren bigarren saioak. Euroeskualdearen “Ezagutzaren ekonomia - berrikuntza - enpresen lehiakortasuna” estrategiaren 2. ardatzaren barruan sartzen da, “Europa 2020” strategiaren esparruan. **Irailaren 15ean** inguru hasiko da eta **5 asteko epea** egongo da proiektuak aurkezteko.

Euroeskualdearen baitan lankidetzaz garatzeko funtsezkoak diren 6 sektore ekonomiko identifikatu ditu Euroeskualdearen estrategiak:

- Aeronautika eta garraioa
- Osasuna/Bio-osasuna,
- Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria,
- Egurrezko eraikuntza iraunkorra,
- Energia berriztagarriak,



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea  
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra  
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

- Itsasoko eta itsasertzeko baliabideak.

Baliabide ekonomikoak funtsezkoak diren sektoreetara bideratzea da asmoa. Hori dela eta, Euroeskualdeak bertako lankidetzaproiektu estrategikoak finantzatzea erabaki du, sektore horiek osatzen dituzten eragile desberdinek elkar ezagutzeko, elkartzeko, haien arteko osagarritasuna aurkitzeko eta Euroeskualde mailan “masa kritikoa” maila jakin bat lortzeko direnak, etorkizunean sinergiak sortzeko eta guztiek batera erronka berriei aurre egiteko: ikerketarako, berrikuntzarako, nazioarteratzeko eta proiektu europarrak taldean prestatzeko proiektuak, hain zuzen ere.